

**GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEKO HEMODINAMIKAKO UNITATEKO
GELA BERRIAREN BISITA / VISITA A LA NUEVA SALA DE
HEMODINÁMICA DEL HOSPITAL GALDAKAO-USANSOLO**

2018-03-09 Galdakao 09-03-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, Osakidetzako zuzendaria, sailburu orde eta bai Osasun Saileko eta baita Osakidetzaren arduradunok, eta nola ez, Ospital honetako zuzendari gerente, zuzendari mediko eta bertoko arduradun guztiok, jaun andreok, egun on.

Gaur, hemodinamikako gela berri bat bisitatu egin dugu Galdakao-Usansoloko Ospitale honetan. Gela hauek puntako teknologia dute eta horrek emaitza hobekak lortzeko aukera emango digu.

Honekin batera, segurtasun handiagoa eskaintzen diete gaixotasun kardiologikoak dituzten eta ebakuntza egin behar zaien pazienteei edo gaixoei. Osakidetzaren talde profesionalak ia 1.800 ebakuntza egin ahal izango ditu urtero, teknologia aurreratuenarekin.

Día a día, demostramos que nuestra apuesta por una sanidad pública de calidad y por la renovación de equipamiento e instalaciones de salud es una apuesta firme y continuada.

Hoy hemos visitado la nueva sala de hemodinámica. El equipo profesional de Osakidetza podrá llevar a cabo 1.800 intervenciones cada año con la tecnología más avanzada, si fuera preciso este número de intervenciones.

Estas salas cuentan con tecnología de vanguardia que garantiza mejores resultados y mayor seguridad a las personas pacientes. Este equipamiento ofrece una calidad de imagen muy superior y, gracias al nuevo software de última generación, permite elaborar un “mapa de la lesión” que facilita las intervenciones y mejora los resultados. Gracias a esta tecnología se consiguen reducir las complicaciones postoperatorias y la persona paciente puede volver el mismo día a su domicilio, lo que mejora su calidad de vida y la de su familia.

Osasun Sailak eta Osakidetzak ia milioi bat euro inbertitu dute hemodinamikako gela berri honetan. Ekipamendu honek aukera ematen du % 30 murrizteko igortzen den erradiazio-dosia; eta horrek, pazienteen nahiz profesionalen segurtasuna hobetzen du.

Osakidetzaren inbertsioari esker, Euskadik bete egiten ditu Europako araudi berriak erradiazio-dosiak murrizteko, eta hau ere garrantzitsua da esatea. Euskadi erkidego aurreratuenetariko bat da arlo honetan.

El Departamento de Salud y Osakidetza han invertido casi un millón de euros en esta nueva sala de hemodinámica. Estas inversiones no son puntuales. Se suman a la renovación de varios escáneres de diferentes organizaciones de la Red de Osakidetza el año pasado. Se suman también a la renovación de las Unidades de Hemodinámica en Cruces y Basurto en los próximos meses.

Este nuevo equipamiento permite reducir un 30% la dosis de radiación, lo que mejora la seguridad de pacientes y profesionales. Gracias a la inversión que Osakidetza viene realizando, Euskadi cumple los requisitos de reducción de dosis de radiación que marca la nueva normativa europea. Euskadi es una de las Comunidades más avanzadas del Estado en este ámbito.

Nuestro compromiso es continuar invirtiendo en nuevos equipamientos que ofrezcan al equipo de Osakidetza la tecnología más avanzada y garanticen a la sociedad vasca mejores resultados en salud. Los recursos técnicos sin embargo, no son nada sin los recursos humanos. Y esto insisto en cada oportunidad que tengo de estar ante los y las profesionales, y quiero por lo tanto, reconocer, una vez más, el trabajo diario, las 24 horas del día, que realizan el conjunto de las y los profesionales de Osakidetza. Una labor que cuenta con el respaldo y la confianza de la sociedad vasca.

Esan bezala, baliabide teknikoak ez dira ezer giza baliabiderik gabe. Aitortu egin nahi dut berriz, Osakidetzaren profesionalak egunero egiten duten lana. Lan horrek, ziur naiz eta ahala diozue, euskal gizartearen babesa eta konfiantza osoa du.

Beraz, bai zorionak gela hauengatik, baina batez ere, eskerrik asko zuen profesionaltasunagatik.